



SINATZAILEA

El Presidente de Mancomunidad Mendialdea /
Mendialdea Mankomunitateko Lehendakaria
UNAI MIRANDA BERROETA
2025/03/25



SINATZAILEA

El Secretario de Mancomunidad Mendialdea /
Mendialdea Mankomunitateko
MAIDER CASTILLA ELARRE
2025/03/26



NIF: P7102551D

LANGILEGOAK/RECURSOS HUMANOS

10/2025 Lehendakari Ebazpena

Leitzan, 2025eko martxoaren 25ean

GAIA: PEOI GIDARIAREN OPOSIZIO-LEHIAKETARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK ETA HAREN ERANSKINAK ONARTZEA

Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa, bere 21.1 artikuluan aitortzen zaizkidan eskumenak eta Mendialdea Mankomunitateko Estatutuen 26.artikuluan jasotako eskumenak kontuan hartuta, UNAI MIRANDA BERROETAk, Mendialdea Mankomunitateko Lehendakariak, honen bitartez,

ADIERAZTEN DU:

2022ko apirilaren 26ko 14/2022 Lehendakari Ebazpen bidez Mendialdea Mankomunitateko 2022rako lan eskaintza publikoa onetsi zen (2022ko maiatzaren 12ko 92. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Bertan peoi gidari lanpostua lehiaketa-oposizio bidez betetzea aurreikusten zen, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak birjarpen-tasaren inguruan araututakoa kontuan hartuz.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DU:

LEHENENGO: I. eranskinean zehaztutako lanpostu hutsak betetzeko deialdia eta haren oinarriak onartzea.

BIGARRENA.- Ebazpen hau eta honi atxikitako oinarriak eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

- I. ERANSKINA: Gaitegia
- II. ERANSKINA: Deialdiaren ezaugarri espezifikoen taula.
- III. ERANSKINA: Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-eredua.
- IV. ERANSKINA: Merezimenduak autobaloratzeko dokumentua

Leitzan, 2025eko martxoaren 25ean,

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da: 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua. 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.



MANCOMUNIDAD MENDIALDEA / MENDIALDEA
MANKOMUNITATEA

Egiaztapen-aseguru kodea: DYCA AAC TWPD 4JXH LNNY

Decreto Nº 10 de 25/03/2025 "Peoi gidari lanpostua betetzeko deialdia" - SEGRA 68866

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://egoitzaelektronikoa.mendialdea.eus/>

1tik 1 orrialdea